

ZURE BOZKA, BERAIEN AHOTSA

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
**OINARRIZKO
PROGRAMA**

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



ZURE BOZKA, BERAIEI AHOTSA

Animaliek Euskadin bizi duten egoera oso larria da. Urtero 7.700 katu eta txakur abandonatzen dira gure herrialdean, hauetako asko txakurtegitan edo errepideetan hilko direlarik.

Euskal instituzioen onarpenarekin gure lurretan bizi azken otso taldearekin bukatu da. Beste ehundaka animalia zezenketa, sokamuturra, idi-proba edo antzarjokoetan parte hartzen dira. Bitartean honen ardura duten politikoei beste alde batera begira daude, praktika hauen bukaera eskatzen duten milaka biztanleen ahotsari entzungor eginez.

Larria eta oso beharrezkoa da sufrimendu guztia hau gelditzen duten neurriak sortu eta aplikatzea. Baloreak sakondu, errespetua landu, benetako kultura sustatu eta ingurunea babesten duen hezkuntza modelo bat garatu behar dugu.

Festa taurinoak behingoz debekatzea eta hauek jasotzen dituzten laguntza ekonomiko guztiak ezabatzea beharrezkoa da, baliabide hauek kalitatezko lanpostuak eta politika sozialetara bideratzeko.

Kontzientziatuak gauden hiritarrak bat egin eta guztion onerako, baita beste animalien onerako ere, lan egiten duen indar bakarra babestu behar dugu.

PACMA pertsona zintzoez osatutako alderdia da, politikara beste alderdiek ahazten dituzten gaiak oinarritik aldatzeko iristen direnak. Ahotsik ez duten horiei ahotsa eman eta politika sozialak animalien aurkako tratu-txarrak ezabatzearekin batera doazela demostratzeko. Gizarte batek ezin baitu aurrera egin diru publikoarekin animaliak hiltzen jarraitzen bada.

Alderdi Animalistak irailaren 25eko hauteskundeetara mundu hobeago bat bilatzen duten gizarte zibileko kideez osatutako hautagaitzak aurkeztzen ditu. Urte osoan zehar babesleketan gogor lan egiten dutenak, animalien defentsarako elkartetan aktibismoa egiten dutenak edo elkarte zibiletan hobekuntza sozialen alde borrokatzen duten pertsonak dira gure zerrendetan doazenak.

Azken hauteskunde orokorretan 280.000 bozka lortu ditugu parlamenturako eta milioi bat baina gehiago senaturako. Animalien eskubideen gaia gero eta garrantzitsuagoa da gizartearentzat eta hau Alderdi Animalistak jasotzen duen babesean du islada.

Irailen 25ean zure eskuetan dago.

Í N D I C E

1 / ANIMALIEN DEFENTSA (8)

- 1.1 ANIMALIEN BABESERAKO LEGEEN ERREFORMA (8)
- 1.2 ZERO ANIMALIA SAKRIFIZIO BABESLEKU ETA TXAKURTEGIETAN (9)
- 1.3 ANIMALIEN DEFENTSARAKO SAILA (10)
- 1.4 KATU KOLONIEN KUDEAKETA (11)
- 1.5 ANIMALIAK ERABILTZEN DITUZTEN IKUSKIZUNAK DEBEKATZEA (11)
- 1.6 ZOO ETA AQUARIUMAK SANTUTEGI BIHURTZEA (12)
- 1.7 EHIZAREN DEBEKUA (12)
- 1.8 ARRANTZA-KIROLEN DEBEKUA (12)
- 1.9 LARRU LANDETXEEN ITXIERA (13)
- 1.10 *FOIE GRAS* LANDETXEEN ITXIERA (13)
- 1.11 ANIMALIEN ERAILKETA POPULAZIO KONTROL METODOTZAT ERABILTZEAREN AURKA (13)
- 1.12 ANIMALIEKIN ESPERIMENTATZEAREN ALTERNATIBAK (13)
- 1.13 KONTZIENTZIA OBJEKZIOA POSIBLE IZATEA ANIMALIEN ESPERIMENTAZIOA ETA ANIMALIEN TRATU-TXARRAK EDO SUFRIMENDUA ERAGITEN DEN EDOZEIN LAN ESPARRUETAN (14)
- 1.14 ANIMALIA JATORRIKO ELIKAGAIK GABEKO MENUA (14)
- 1.15 TIRORAKO ANIMALIAK EZ ERABILTZEA (14)
- 1.16 GAINERAKO ANIMALIENGANAKO ERRESPECTUAREN GAINeko SENTSIBILIZAZIOA HEZKUNTZA-ZENTROETAN (14)
- 1.17 ANIMALIENTZAKO OSASUN SISTEMA PUBLIKO BATEN DEFENTSA (15)
- 1.18 ANIMALIAK OSPITALEETARA SARTZEA (15)
- 1.19 ZAHAR-EGOITZETARA ANIMALIAK SARTZEA (15)
- 1.20 ATERPE ETA JANGELA SOZIALETARA ANIMALIEN SARRERA ONARTZEA (15)
- 1.21 ERRENTA AITORPENEAN ALBAITARI GASTUEN KENKETA (15)
- 1.22 LANTOKI PUBLIKOETAN ANIMALIA ZAINDEGIAK (16)
- 1.23 ANIMALIAK GARRAIOBIDEETAN SARTZEA (16)

2 / EKONOMIA, LANBIDE ETA ETXEBIZITZA (18)

- 2.1 AUTONOMO ETA ETEEN LANA BULTZATZEA (18)
- 2.2 IRAUPEN LUZEKO LANPOSTUAK SUSTATZEA (18)
- 2.3 HELBURU SOZIALAK DITUEN I+G+B (19)
- 2.4 EUSKARRI EKONOMIKOENTZAT ERAGINKORTASUN ZENTROAK SORTZEA (19)
- 2.5 ITXITAKO INDUSTRIA GUNEEN AKTIBAZIOA (20)
- 2.6 INGURUGIROA ERRESPESTATZEN DUEN KALITATEZKO TURISMOA (20)
- 2.7 NEKAZARITZAREN DEFENTSA (20)
- 2.8 SOLDATA DESPAREKOTASUNAREN MURRIZKETA (21)
- 2.9 ERREFORMA FISKALA (22)
- 2.10 IRUZUR FISKALAREN AURKAKO BORROKA (22)
- 2.11 KONFIANTZAZKO KARGUEN MURRIZKETA (22)
- 2.12 LAGUNTZA SOZIALEN MANTENTZEA (22)
- 2.13 ETXEBIZITZA (22)
- 2.14 OINARRIZKO GAS, UR ETA ARGINDAR-HORNIDURA ESKUBIDEA (23)

3 / OSASUNGINTZA (25)

- 3.1 OSASUNGINTZAREKIKO GURE PROPOSAMEN ELEKTORALAK HURRENGOAK DIRA (25)
- 3.2 KUDEAKETA PRIBATUA KENTZEA (25)
- 3.3 KONTSUMO ETA OSASUN OHITUREN INGURUKO INFORMAZIO KANPAINAK (25)
- 3.4 OSASUN-ZENTRO ETA OSPITALEETAN NUTRIZIONISTA LANPOSTUAK SORTZEA (25)
- 3.5 LAN OSASUNA (26)

4 / HEZKUNTZA, TEKNOLOGIA ETA KULTURA (28)

- 4.1 KALITATEZKO HEZKUNTZA PUBLIKO BATEN DEFENTSA (28)
- 4.2 LIBURUTEGI PUBLIKOAK KULTURA DIFUSIO ZENTRO BEZALA ERABILTzea (29)
- 4.3 GAZTEENTZAKO AISIALDI ALTERNATIBEN ALDEKO APUSTUA (29)
- 4.4 TEKNOLOGIA BERRIAK (30)

5 / BERDINTASUN POLITIKAK (32)

- 5.1 GIZON ETA EMAKUMEEN SOLDATA BERDINTZEKO PAKTU SOZIALA (32)
- 5.2 ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEN LAN ESKUBIDEA (32)
- 5.3 GENERO BERDINTASUNA (32)
- 5.4 SEXU ANIZTASUNA (33)
- 5.5 ANIZTASUN FUNTZIONALA (34)
- 5.6 MIGRATZAILEAK (34)

6 / DEMOKRAZIAREN BIRSORKUNTZA ETA ZUZENBIDE ESTATUA (36)

- 6.1 DEMOKRAZIA PARTE-HARTZEDUNA (36)
- 6.2 HIRITARGOAREN ESKUBIDEAK BERMATUKO DITUEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIO ERAGINKORRA (36)
- 6.3 HAUTESKUNDE-LEGEAREN ERREFORMA (36)

7 / GARRAIOA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA (39)

- 7.1 IRISGARRITASUNA (39)
- 7.2 IBILGAILU-SEGURTASUNAREN ALDEKO INFORMAZIO KANPAINAK (39)
- 7.3 GARRAIO-PUBLIKOA (39)
- 7.4 LANGABETUEK GARRAIO PUBLIKOA DOAN ERABILI AHAL IZATEA (40)
- 7.5 ERREPIDEETAKO BAZTER-BABESAK ESTALTZEA (40)
- 7.6 ERREPIDE ETA BESTE AZPIEGITUREN ONDORIOZ HILTZEN DIREN ANIMALIEN KOPURUA MURRIZTEKO NEURRIAK (40)
- 7.7 ESPEKULAZIORIK GABEKO ETA PERTSONEN NEURRIRA ERAIKITAKO HIRIGINTZAREN ALDE APUSTU EGITEA (41)

8 / INGURUMENA (43)

- 8.1 PARKE NATURAL ETA KOSTAREN LEGEZKO BABESA (43)
- 8.2 NATURA 2000 SAREAN BABES EREMU BEREZIAK SORTZEA (43)
- 8.3 BATASUNEKO ESPEZIEEN BABES BEREZIA (43)
- 8.4 OTSOAREN BABESA (44)
- 8.5 INGURUMEN AGENTEAREN LANPOSTUA BABESTU (44)
- 8.6 FRACKING-AREN BUKAERA (44)
- 8.7 SUTEEN AURKAKO BORROKA (44)
- 8.8 HONDAMENDIETAN ANIMALIAK EBAKUATZEKO PROTOKOLOA (45)
- 8.9 PUNTAKO KLIMA EGOERETARAKO ANIMALIA BASATIEN LAGUNTZA PROTOKOLOAK (46)
- 8.10 ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO BORROKA (46)
- 8.11 BERRIZTAGARRIA, JUSTUA ETA DEMOKRATIKOA DEN ENERGIA MODELOA (46)
- 8.12 HONDAKINEN PRODUKZIO MURRIZKETA ETA BALIABIDEEN ERABILERA JASANGARRIAREN SUSTAPENA (47)
- 8.13 2020 URTERAKO BIOANIZTASUN GALTZEA GELDITZEA (47)
- 8.14 IBAI GARBIAK ETA URAREN AURREZPEN ERAGINKORRA (48)
- 8.15 BASOEN BABESA (48)
- 8.16 PRODUKTU KIMIKO ARRISKUTSUAK MURRIZTEA (48)
- 8.17 PERTSONA GUZTIEK AIRE OSASUNTSUA IZATEKO ESKUBIDEA (49)
- 8.18 INGURUMEN ETA JUSTIZIA SOZIALEAN OINARRITUTAKO POLITIKA KOMERTZIALAK SUSTATZEA (49)
- 8.19 ZERGA-SISTEMA JASANGARRIA (50)

EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
OINARRIZKO PROGRAMA

1

ANIMALIEN DEFENTSA

ZURE BOZKA, BERAIEN AHOTSA

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



1 / ANIMALIEN DEFENTSA

Animalien egoera oso larria da. Ezinbestekoa da haien egoera hobetuko duten premiazko neurriak hartzea. Hauek dira gure helburu nagusiak:

- **Txakurtegietan Zero Sakrifizio politikak bultzatzea esterilizazio, adopzio sustatze, hezkuntza politika eta kontzientziazio soziala bezalako neurrien bitartez.** Milaka animaliak bizi duten tragedia desagerrarazteko erroak hauek direla uste dugu.
- **Animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunekin bukatzea, diru publikoaren milioika eurori esker bizirauten duten zezenketa eta beste jaialdi taurinoetatik hasita, gizarte osoaren zergekin finantziatuak baitira.** Zirkuen debekua onartuko da legeri autonomikoan.
- **Ehiza eta kirol-arrantzaren amaiera bilatzea, urtero animalia ugariaren heriotza sortzen baitituzte.** Praktika hauek abandonu eta heriotzara kondenatzen ditu gainera milaka txakur. Usakume-tiroa bezalako jardueren aurka borrokatuko dugu aktiboki.

Helburu hauetan oinarriturik, hauek dira gure proposamen elektoralak:

1.1 ANIMALIEN BABESERAKO LEGEEN ERREFORMA

Animalian babeserako araudia autonomikoen berrikuste sakon bat eramango dugu aurrera hurrengo helburuekin:

- **Animaliei tratu-txarrak eragiten dietenei isunak handitzea.** Egun zigorren zenbatekoa berragarria da eta animaliak oker tratatu eta abusatzen dituztenei ia inpunitate egoera ematen die.
- **Animaliekiko tratu-txarren kasuak ikertu eta jarrai ditzaten talde polizialei baliabide zehatzak ematea.** Gertatzen diren izugarriko kasu kopurua gelditzeko modurik hoberena gizaritari administrazioak izango duen tolerantzia zero jarrera helaraztea da.
- **Mutilazioak eta organo edo gorputzeko beste zatien erauzketak debekatzea,** salbu esterilizazio edo helburu terapeutikoekin eta betiere albaitari baten agindupean egiten badira.
- **Animaliak edukitzea debekatzea aurretik arau-hauste grabe edo oso grabeak egiteagatik zigortu dituztenak.**
- **Animaliak lotuta edo kaiolaturik bizitzea galaraztea.** Kanpoan bizi direnak bero eta hotzetik isolatzen duten materialekin egindako bizilekuak beharko dituzte, euri, eguzki edo eguraldi txarretik babestuta bizi ahal izateko. Hauek bere arraza eta espeziearen neurrira egokituko dira.

- **Inbaditzaile bezala katalogatu diren espezieei babes neurriak bermatzea.**
- **Animalien Babeserako Udal Guneen kudeaketa lehiaketetan bertakoak diren erakunde animalistak parte hartzeko eskubidea bermatzea.** Egun gune hauen gehiengoak animalien eskubideak bermatzen ez dituzten eta zentzurik gabeko sakrifizioak burutzen dituzten enpresak kudeatzen dituzte. Esleipenetan balorazio hobea emango zaie etekin ekonomikoa bilatzen ez duten erakundeei, interes ekonomikoa duten enpresen gainetik.
- **Esleipen pliegoetan oinarrizko jarraibideak eratztea.** Proposamen teknikoak pisu gehiago izango du ekonomikoak baino, beti argi utziz esleipenaren helburua animalien ongizatea dela. Enpresa horien instalazioak aztertuko dira eta, era berean, enpresa edo erakunde horiek jasotzen dituzten animalien kontrol eta jarraipen sistema bat ezarriko da.
- **Animalia Santutegiak legez onartzea, egun abeltzaintza esplotaziotzat hartzen baitira.** Erakunde hauen helburua abandonatutako edo industriak deuseztatutako animaliak jasotzea eta hauei bizitza duin bat ematea da.
- **Animaliak defendatzen dituzten elkarteak tratu-txar espediente irekietan interesdun alde bezala hartzea, salakuntzak ikerketarik gabe artxibatuak izatea ekiditeko.**
- **Udalek parke eta lorategietan animalientzako aisialdi guneak sortzeko derrigortasuna batzea oraindik onartzen ez duten Legeri Autonomikoetara.**
- **Bertako administrazioei legeriak abandonatutako edo (1974ko abenduaren 5eko araua) betearaztea, hau da, hauen jasotze eta mantentzearen ardura izatea.** Gaur egun udalen portzentaje handi batek ez du legeriaren zati hau betetzen eta, gainera, ez da ez jarraitzen ezta zigortzen ere.

1.2 ZERO ANIMALIA SAKRIFIZIO BABESLEKU ETA TXAKURTEGIETAN

Urtero 8.000 katu eta txakur inguru abandonatzen dira Euskadin. Batzuk ibilgailuek harrapatuta hiltzen dira, beste batzuk, aldiz, gosez edo tenperatura altuegiak jasan behar izateagatik. Beste batzuk harrapatu eta gainezka dauden babeslekuetara eramaten dituzte, non gehienetan sakrifikatuak izaten diren. Egoera honen aurka borrokatzeko goraipatzea merezi duen esfortzu handia egiten dute babeslekuek: zaindu, esterilizatu, eta abandonatutako animaliak adopzioan ematea, besteak beste.

Hala ere, Alderdi Animalistatik uste dugu arazo honi aurre egiteko animalien salerosketa debekatzeko neurriak onartu eta adopzio eta esterilizazio politikak aurrera eramatea beharrezko dela.

Hurrengoa proposatzen dugu:

- **Jasotako animaliak sakrifikatzea debekatu duen Babes Lege bat onartzea, Euskadiko Autonomia Erkidegoak onartzen duen 30 eguneko epea ezabatuz eta animalia hori adoptatu edo behin-behinekoz etxe batean hartzen den arte hau zaintzera behartuz.**

- **Konzientziario sozial eta esterilizazioaren alde eta abandonuaren kontrako hezkuntza kanpainak, babeslekuetara bisitak izatea batu ditzaketenak.**
- **Txakur eta katuen esterilizazio programak, kontzientziario soziala sustatu eta populazioa kontrolatzeko helburuekin. Jabeek esterilizazioaren gastua ezin badu Udalak bere gain hartu beharko du.**
- **Txakurtegi, udal babesleku eta dendek animaliak esterilizatuak eman beharko dituzte, edo animaliak gutxieneko adina ez badu esterilizatzeko konpromisoa onartuta entregatuko zaio. Esterilizazio hauen kostua udalen ardura izango da bere osotasunean.**
- **Animaliekin era arduratsuan bizitzeko irizpideen garapena. Galdetegi zabal bati erantzutea eskatuko da, baita adoptatuko dutenen bizilekura bisita eta hauekin elkarrizketa sakon bat izatea.**
- **Entregatzen den animalia ongizatea bermatzea jarraipen konstante baten bitartez.**
- **Animalien Babeserako Zentroei nahikoa zaien aurrekontu-sail bat eta espazio publikoen zesia bermatzea udalerriekin kolaborazioan.**
- **Babeslekuetako zuzendutako urteroko laguntza ekonomiko eta diru-laguntza programa bat sortzea. Egun ez da existitzen eta erakunde hauen albitari, elikagai eta beste beharren gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzte.**
- **Animalien salerosketari pizgarria kenduko dioten neurriak sustatzea hau debekatzen den bitartean eta babeslekuetako animalien adopzioa sustatuko dutenak eratzea. Neurrien artean dendetako erakuslehoietan animaliak egotea debekatzea onartuko da.**
- **Animaliak ilegalki haztea legerian falta oso grabe bezala tipifikatu eta delitu hau jarraitzea. Haztegiek betebeharreko baldintza batzuk zehaztuko dira. Eme bakoitzak izan ditzakeen umealdi mugatuak honen barne izango dira, besteak beste, eta aditu independenteen esku izango da hau zihurtatzea. Esplotazio zentro hauetan ikuskaritzak egiteko gaitasuna Estatuko segurtasun indar eta kidegoek izango dute.**
- **Hiri inguruneetako uso eta beste hegazti edo karraskari espezieen jaiotza-tasak kontrolatzeko analisi eta sistemen garapena egitea. Janari antisorgailua izan daiteke sistema hauetako bat, horrelako neurrietan espezializatutako enpresen eta udal-teknikarien arteko lan koordinatuaren bitartez aplikatuko dena, betiere.**

1.3 ANIMALIEN DEFENTSA SAILA

Administrazioek premia dute animaliekiko errespetu handiagoa eta etikoagoa den gizarte batera egokituko dien neurriak aurrera eramatea, animaliekiko indarkeria saihesteko bidean. Animalien Defentsarako Saila sortzea proposatzen dugu horretarako, animalien ongizate eta defentsa zentralizatzea helburutzat izango duena eta animalien babesean diharduten erakundeak aholkulari izango dituena. Formakuntza egokia duten funtzionarioak izango ditu.

Eskuduntza eskusiboko departamentu baten faltak animalien kontra egiten diren ekintza ilegalak saihesteko lanak zailtzen dizkio Administrazioari. Honetaz gain, beharrezko iruditzen zaigu animalien babeserako informazioa eskaintzen duen doako telefono bat: bertan, besteak beste, animalia babeslekuetara buruzko informazioa edo Polizia edo Guardia Zibilarekin komunikazioa eskaini da, tratu-txarren salakuntzak jarri nahi badira hauekin zuzenean komunikazioa izateko, adibidez.

Beharrezkoa da segurtasun indar eta kidegoek, normalean kalean abandonatzen diren animaliak jasotzen dituztenak diren heinean, txip irakurleak izatea galdutako animaliak ahalik eta azkarren lokalizatu eta haien familietara eramateko. Modu honetan bai animaliarri eta baita honen familiari larrialdi uneak murriztea lortuko da.

Animaliekin harremandu eta hauek maneiatzeko Udaltzaingoen formakuntza zehatza proposatzen dugu. Babeslekuetara aholkuak jarraituz jardute eraginkorren protokoloen ezarpena.

1.4 KATU KOLONIEN KUDEAKETA

Hiri katu koloniak legezko jabe ezagunik gabe kalean kizi diren katuek osatzen dituzte. Kalean bizi den katu kopuru altuaren ondorioz koloniak kontrolatzeko eredu etiko, erabilgarri eta eraginkor bat aplikatu behar da, kolonia hauen beharrak babestu eta, aldi berean, hauen populazioa murriztea helburu izanda.

Katu kolonien kontrol metodo etiko eta eraginkor bakarra HEA metodoa da (Harrapaketa – Esterilizazio – Askatze). Administrazioaren, animalien

defentsan diharduten taldeen eta boluntarioen lanen arteko koordinazioak metodo honen eraginkortasuna hobetzen du.

Administrazio Autonomikoak, udalekin batera, animaliak harrapaketa, esterilizatze, askatze eta mantenuaren ardura izango du. Ekintza hauek beti entitate animalisten aholkularitzapean egingo dira eta zaintza lanak bolondresen laguntzarekin.

Honetarako, "elikatzaile ofizial"-aren figura legez onartu eta babestuko da. Figura honek administrazioarekin erlazioa, formakuntza eta ezagutza demostratuak izango ditu.

1.5 ANIMALIAK ERABILTZEN DITUZTEN IKUSKIZUNAK DEBEKATzea

Ikuskizun guztien oinarrian tratu-txarrak daude, neurri txiki edo handian. Animaliei bere askatasuna urratu, ekintza antinaturalak egitera behartu, egoera estresagarriak pairatu, gehiegizko esfortzuak egin, puntako tenperaturak jasan edo zuzenean heriotzara eramaten dieten egoerak bizi dituzte zirku, idi-proba, zezenketa edo sokamuturra bezalako beste ikuskizun n taurinoetan.

Hurrengoa proposatzen dugu:

- **Animaliak erabiltzen dituzten jardueri dirulaguntza publiko guztiak kentzea.**
- **Jai taurino guztien debekua.**
- **Animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunen irratia edo telebista autonomikoen emanaldiak ezabatzea.**

- **Irrati eta telebista publikoetan animalien defentsaren inguruko saio bat sortzea, hauen egoera nolakoa den erakustez gain adopzioa eta esterilizazioa sustatuko duena.**
- **Herri kiroletan animaliak erabiltzea debekatzeko.**
- **Animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunak Kultura Interes Ondasunak direla baztertzeko.**
- **Atzeraeginezko izaerarekin debekatzeko Kultura Interes Ondasun adierazitako edozein kultura espresio non animaliak erabiltzen diren.**
- **Animaliadun zirkuen debekua. Entrenamenduetan kolpeak, deskarga elektrikoak eta ur eta janari eza sufritzen baitute. Honetaz gain animaliei milaka kilometro kaiolaturik eta ka-teaturik bidaiatzera behartzen zaie, haien oinarrizko beharrak betetzen ez dituzten konpartimentuetan.**

1.6 ZOO ETA AQUARIUMAK SANTUTEGI BIHURTZEAK

Zoologikoetan animaliak gatibu bizi dira, haien habitatetik urrun eta bere espeziearen oinarrizko beharrak ase gabe. Honek bistakoak diren sufrimendu fisiko eta psikologiko latzak sortzen dizkie bertan kaiolaturik daudenei. Santutegien helburu bakarra animalien ongizatea da, etekin ekonomikorik gabe. PACMAk zoologikoak gutxinaka santutegietan bihurtzea proposatzen du, bere habitatera bueltatzeko gai ez diren animalia horiei babesa eman ahal izateko.

1.7 EHIZAREN DEBEKUA

Espanian 30 milioi animalia baina gehiago erailtzen dira ehiza denboraldian. 6000 tona berun sakabanatzen dira ekosisteman eta honek animalia eta gizakien intoxikazio ugari eragiten ditu. Oso ohikoa da ehizarako erabiltzen diren txakurrak -50.000 galgo eta podenko inguru- tratu-txarrak, torturak edo abandonuak jasatea.

Honetaz gain, praktika honek inguruneaz askatasunean gozatzea galarazten du eta ehiza guneak zeharkatzen dituzten ibiltari edo txirindulariak zigortzea iritsi da. PACMAk hau ez gertatzea ahalbidetuko du eta edozein herritarrek duen naturaz gozatzeko eskubidea babestuko du.

PACMA bereizketarik egin gabe ehiza mota guztien aurka posizionatzen den alderdi bakarra da. Uste dugu aisialdi jarduerak ezin dutela bizitza basatiaren aurka atentatu, ezta eremu naturalen aurka edo gizakiaren aurka ere.

1.8 ARRANTZA-KIROLEN DEBEKUA

Kirol-arrantzaren modalitate guztiak praktikatzen dira gure herrialdean (lurretik, ontzitik edo ur azpikoa). Nahitaezkoa ez den eta ur eta ibaietako fauna kaltetzen duen jarduera honen biktima dira milaka norbanako urtero.

Proposatzen dugu:

- **Arrantza-kirolak debekatzeko kontrol zehatzaren mekanismoak sortzea arrantza ilegalaren inguruko legea betearazteko.**

1.9 LARRU LANDETXEEN ITXIERA

Larru landetxeetan bisoiak eta beste ugaztun batzuk esplotatzen dira haien azalak lortzeko. Hauetan esklabotzapean eta kaiola txikietan igarotzen dute bizitza osoa, gaseatuta edo elektrokutaturik erailtzen dituzten arte. Askotan azala kentzen dietenean bizirik jarraitzen dute. Igualdad Animal eta beste erakunde batzuen ikerketek esplotazio zentro hauetan animaliek bizi duten egoera azaleratu dute.

Ingalaterra, Gales, Kroazia edo Austrian jada debekatuta dauden landetxe hauen itxiera defendatzen dugu.

1.10 FOIE GRAS LANDETXEEN ITXIERA

Foie gras-a gainelikatutako ahate edo antzara baten gibel hipertrofiatua da. Ikerketa desberdinek erakusten dute produktu hau lortzeko animaliek beraien bizitza osoan bizi behar duten egoera.

Egungo testuinguru sozialak mota honetako abeletxeen itxiera ahalbidetzen du, beste herrialde batzuetan gertatu den bezala. Alemania, Argentina, Danimarka, Finlandia, Holanda, Ingalaterra, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Nobegia, Polonia, Txekiar Errepublika, Suedia edo Suitzak jada debekatu dituzte.

Debekua betetzen ez den bitartean Administrazio Publikoak gestionatzen duen edozein jangelak produktu hauek ez saltzea eta gobernu autonomikoaren ekitaldietan hauek ez zerbitzatzea defendatzen dugu.

1.11 ANIMALIEN ERAILKETA POPULAZIO KONTROL METODOTZAT ERABILTZEAREN AURKA

Ehiza debekua duten eremuetan animalien gehiegizko populaziorik ez dagoela alde batera utzita, gatazka sortzen bada animalien erailketa ezin da izan konponbideetako bat.

- **Animalia exotikoen salmenta, trafiko eta merkataritzarekin bukatzea.**
- **Krudelak ez diren populazio kontrol programen ezarpena.** Esterilizazioa, arrautzen kontrola edo kontrazepziozko depositoak, besteak beste, eraginkorrak direla demostratu da.
- **Edozein espezieren birpopulazioa edo bertakoak ez diren espezieak helburu zinegetikoekin mugitzearen debekua.**

1.12 ANIMALIEKIN ESPERIMENTATZEAREN ALTERNATIBAK

Esperimentatzeko erabiltzen diren animaliek jasaten duten izugarriko sufrimendua aski frogatuta dago eta honi ezin diogu bizkarra eman. Mundu osoko enpresa eta erakundeek erabiltzen dituzten metodo etikoak ezarri eta garatzea babesten dugu. Era berean metodo berrien onarpen eta finantziazioa bermatzea nahi dugu.

1.13 KONTZIENTZIA OBJEKZIOA POSIBLE IZATEA ANIMALIEN ESPERIMENTAZIOA ETA ANIMALIEN TRATU-TXARRAK EDO SUFRIMENDUA ERAGITEN DEN EDOZEIN LAN ESPARRUETAN

Hezkuntza espezialitate eta eremu guztietan animalia esperimenterako kontzientzia objektua egiteko eskubidea defendatzen dugu. Ikasleen hezkuntza animalien onurarekin bat egitea bultzatuko dugu unibertsitate eta babeslekuen arteko akordioekin adibidez, horrela babeslekuetako animalien esterilizazioak albaitaritza fakultateetan egin daitezten.

1.14 ANIMALIA JATORRIKO ELIKAGAIRIK GABEKO MENUA

Administrazio Publikoaren menpe dauen eraikin eta zentro guztietan, ospitaleetan, eskola jangeletan, unibertsitate publikoetan eta karteletan animalia jatorri gabeko aukerako menu baten aldeko apustua egin nahi dugu.

1.15 TIORAKO ANIMALIAK EZ ERABILTzea

Animaliak tirorako erabiltzeak min fisiko handia eta osasun arazoak sortzen dizkie, hortaz, praktika honetarako alternatibak aztertu eta emaitzak aplikatzea proposatzen dugu.

1.16 GAINERAKO ANIMALIENGANAKO ERRESPECTUAREN GAINEKO SENTSIBILIZAZIOA HEZKUNTZA- ZENTROETAN

Alderdi Animalistak bidezkoago eta justuagoa den gizarte bat ziurtatu nahi du guztientzat, animaliak barne. Hau lortzeko modurik eraginkorrena hezkuntza formalaren bidez egitea da, hezkuntza-sistema eta helduen heziketa ahaztu gabe.

Horretarako proposatzen dugu:

- **Animaliekiko errespetua irakaskuntza-maila guztietako zeharkako gai bezala onartzea, tutore ekintza, curriculum zentral eta osagarri-zko jardueretan kontuan hartzea eta hezkuntza-zentroetako antolakuntza eta kudeaketan oinarritzko gaia izatea.**
- **Irakasleak animaliekiko errespetuan hezteak.** Irakasleak dira errespetu-balioak justizia eta animaliekiko empatia transmititzeko funtsezko pieza dira. Horregatik tratu-txarrarekin eta animalien eskubideekin erlazioa duten oinarritzko moduluen integrazioa babestuko dugu irakasleen formakuntzan Magisteritza eta Irakaskuntza Masterren irakaskuntza planen bitartez.
- **Animaliekiko errespetuzko balioak bultzatuko dituzten heziketa-materialen (testuliburu eta beste baliabideei) moldaketa.** Animaliekiko errespetua bultzatzen ez duten edukiak kenduko dira.

- *Adingabeek egindako animaliekiko tratu-tzar kasu posibleak antzemateko alertamaila handia mantentzea. Genero eta familia barneko indarkeria eta jokaera antisozialak animalien aurkako tratu-tzarrekin lotzen dituzten ikerketak ugariak dira.*

1.17 ANIMALIENTZAKO OSASUN SISTEMA PUBLIKO BATEN DEFENTSA

Animalientzako osasun sistema publiko baten ezarpen progresiboa beharrezkoa da, babeslekuai arreta berezia jarriz. Bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu egoera ekonomiko ahulago batean dauden eta animaliekin bizi diren familiak kontuan hartzea, batez ere familia hauek al baitari gastuak bere gain hartu ezin dituztenean.

1.18 ANIMALIAK OSPITALEETARA SARTZEA

Denbora luzeko gaixoak bisitatzeko animaliak ospitaleetara sartzeari defendatzen dugu, pertsona hauek beren animaliekin egon nahi baitute eta banaketak egoera psikologikoari eragin baitiezaiok. Animaliak osasun-zentroetara sar daitezenean mekanismoak aktibatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, betiere beste gaixo eta bertako langileak oztopatu gabe egiten bada.

1.19 ZAHAR-EGOITZETARA ANIMALIAK SARTZEA

Zahar egoitzetan bizi diren pertsonak askotan animaliekin bizi dira. Bere horretan traumatikoa izan daitekeen egoera horretan animalien ongizatea eta beraiena bermatzeko beharrezkoa da kontaktua mantentzea. Animalia zahar-egoitzan bizitzeko aukera badago hau erraztu egingo da eta, posible ez bada, bisita sistema berezi bat onartuko da kidea zahar-egoitzara joateko aukera izan dezan.

1.20 ATERPE ETA JANGELA SOZIALETARA ANIMALIEN SARRERA ONARTZEA

Etxebizitza eta elikadura bezalako oinarrizko beharrak asetzen ez dituen egoera ekonomikoa jasaten duten pertsonak ez lukete erabaki beharko aterpera sartu edo beraiekin bizi diren animalien ondoan egotearen artean. Beraiekin dauden animaliak bakarrik ez uzteko pertsona hauen gehiengoak kalean egiten du lo. Errealitate honen aurrean Autonomia Erkidegoek kudeatzen dituzten aterpe eta jangeletara animaliak askatasunez sartzeari proposatzen dugu.

1.21 ERRENTA AITORPENEAN ALBAITARI GASTUEN KENKETA

Autonomia Erkidegoko Errenta Aitorpenean al-baitari gastuak kenketa izatea proposatzen dugu. Gastu hauek Administrazioak ordaindu beharko lituzke, orain gertatzen ez den bezala.

1.22 LANTOKI PUBLIKOETAN ANIMALIA ZAINDEGIAK

Atera berri den ikerketa baten arabera lanera animaliekin joan nahiko luke biztanleriaren erdiak. Autonomia erkidegoaren zentroetan animalia hauen zainketaz arduratuko den zerbitzu baten sorrera defendatzen dugu. Langileen lan motak animaliekin egotea posible ez denean animaliak zainduak eta lagunartean izango dira lanorduen bitartean.

Honetaz gain Administrazioaren eta enpresen arteko hitzarmenak sinatzea proposatzen dugu, lantoki pribatuek ere honen antzeko zerbitzuak izan ditzaten.

1.23 ANIMALIAK GARRAIOBIDEETAN SARTZEA

EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
OINARRIZKO PROGRAMA

2

EKONOMIA,
LANBIDE ETA ETXEBIZITZA

**ZURE BOZKA,
BERAIEN AHOTSA**

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



2 / EKONOMIA, LANBIDE ETA ETXEBIZITZA

Langabezia gure herriaren arazo larrienetakoa da. Alderdi Animalistak gure gizartearen etorkizuna bermatzea eta ongizate sistema ekonomikoa he-lburu izanik kalitatezko lanpostu egonkorrak bultzatu nahi ditu. Prekaritatearekin, soldata desperekotasunarekin eta diskriminazioekin bukatu nahi dugu.

Enplegu egonkor batean oinarritutako garapen ekonomikoa sinesten dugu, hau da I+G+b-ren (Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza) sustapenean oinarritzen den ekonomia eredu berri batean, energia berriztagarriei babes ematen diena eta turismo kultural eta jasangarriari laguntzen diona.

Beste kezka handietako bat etxebizitza da. Azken urteetan etxeen prezioen beherakada eman da, baina oraindik gizartearen gehiengoak ez du gaitasun ekonomikorik hauek erosteko, eta soldataren zatirik handiena alokairu edo hipotekak jaten du. Horren ondorioz etxebizitza duin baten alde borrokatzen duten kolektibo ugari sortu dira, hauen helburuekin bat egiten dugularik.

Horren harira hauek dira gure proposamenak:

2.1 AUTONOMO ETA ETEEN LANA BULTZATZEA

Gure gizartearen garapen eta etorkizunerako ezinbestekoa da autonomoen eta ETE-en lana, merkatu gero eta zailago batean bizirauteko borrokatzen dutenak. Bankuen finantziario faltak eta administrazioaren trabek, besteak beste, hauen egoera zailtzen du gainera.

Egoera honi konponbidea emateko hurrengo proposatzen dugu:

- *Lanbide Arteko Gutxieneko soldata baina gutxiago fakturatzan duten autonomoek kuoten ordainketa ez egitea, eta ordainketa sistema progresibo bat sortzea hau baina gehiago fakturatzan dutenei, kuota minimoak ezabatuz.*
- *Banku sektoreak ETE eta autonomoei beraien egoera prekariora egokituko diren maileguak egin ditzaten legeriaren erreforma bat egitea.*

2.2 IRAUPEN LUZEKO LANPOSTUAK SUSTATZEA

Iraupen luzeko lanpostuak sustatu nahi ditugu hauek egiten dituzten enpresei diru laguntzak emanaz. Neurri honekin "zakar-kontratuen" arazoari konponbidea eman nahi diogu.

2.3 HELBURU SOZIALAK DITUEN I+G+B

Kalitatezko I+G+b ekimenak bultzatzea ezinbestekoa da gizarte hobea baterantz jo nahi badugu. Teknologia lanpostuak sor ditzakeen lanabes garantzitsua den heinean, horretarako erabili behar dugu, betiere irizpide etikoak erabiliz.

“Zientziaren aldeko gutuna” deitutako I+G+b-ren defentsan egin den akordioan parte hartuz frogatu du Alderi Animalistak ikerketa eta garapenarekin duen konpromisoa.

Ikerketa edozein gizarte modernoren oinarria da. Historiak frogatzen digu aberastasun, berdintasun, osasun, hezkuntza eta kultura emaitza hoberenak dituzten herrialdeak ikerketan esfortzu handienak jarri dituztenak direla. Hoberenek ikertzen dute, besteak zortearren eskuetan geratzen dira.

Diru publikoarekin finantzaturako ikerketen emaitzak doako erabilera eta hedapenekoak izango dira. Emaitzak aldizkari zientifikoetan publikatzen badira, hauek ere doan eskuragarri izatea eskatzen dugu.

Ikerketa, garapena eta berrikuntza babesteko hurrengo neurriak proposatzen ditugu:

- **Zientzia babesteko programen sorrera eta aplikazioa, zientzialari gazteen formakuntza eta baita aurreko gobernuen murrizketek baliabide publikoetan eragindako hondaketei aurre egiteko inbertitza.**

- **Goraka ari diren edo sendotuak dauden sektore ekonomikoetara lotuta dauden ikerketa berriekin elkarlana sortzea. Honen helburua gure baliabide energetiko, teknologiko eta naturalak ikertzaileen eskuetan uztea izango da, betiere ingurunea edo beste animaliak kaltezen ez badituzte.**
- **Unibertsitate publikoetan egin diren ikerketak zabalduko dituen webgune zentralizatu baten sorrera, Autonomia Erkidego desberdinetako unibertsitateak eta enpresak kontaktuan jarriko dituen.**
- **Ezagutza desberdinak bilduko dituen ikerketa eta berrikuntzaren inguruko hitzaldi ziklo mugikor eta aldizkako baten sorrera.**
- **Zientzia eta teknologiaren sistemak indartzea unibertsitateak sendotu eta, horrela, talentu eta finantziaketa erakartzea lortuz.**

2.4 EUSKARRI EKONOMIKOENTZAT ERAGINKORTASUN ZENTROAK SORTZEA

Unibertsitate arloak eta industrialak bat egin dezaketen espazioen sorrera babesten dugu, modu honetan kalitatezko lanpostuak sortuko dituzten ekimen ekonomiak gerta daitezten. Zentro hauek formakuntza profesionala eskaini, unibertsitate ikerketak erraztu eta inbertsio pribatua sustatuko da enpresa berrientzako mintegien eta erabilgarri izango diren ikerketa gelen bitartez.

2.5 ITXITAKO INDUSTRIA GUNEEN AKTIBAZIOA

Krisiak eta gestio politiko txarrak familia askoren ekonomia babesten zituen enpresa askoren itxie-
ra eta desegitea ekarri du. Alderdi Animalistatik
uste dugu ez dela inoiz berandu jarduerara buel-
tatzeko edo birmoldatze eraginkor eta zentzudun
bat egiteko.

2.6 INGURUGIROA ERRESPETATZEN DUEN KALITATEZKO TURISMOA

Gure Kultura Ondare aberatsean eta ingurune ezin
hobean oinarrituz kalitatezko turismoa eskaintze-
ko nahikoa baliabide ditugu, urtaroari lotuta ez
dagoena gainera.

Horretarako hurrengo proposatzen dugu:

- **Gure Kultura Ondare aberatsaren sustatzea, animaliak erabiltzen dituzten festei Interes Turistiko dadierazpena ezabatuz.**
- **Espainiako Turismo institutua sustatzea, eskaintza estatuko museo, paradore eta ingurune naturaletako turismo egonkorrean oinarrituz.**
- **Gure turismoaren jatorrizko lekuetan egiten diren aisialdi ekintza kulturalen sustapen eta hedapena.**
- **Turismo gida eta materialek irizpide etiko eta jasangarriak barne hartzea.**

2.7 NEKAZARITZAREN DEFENTSA

Nekazaritzaren babes eta laguntzaren alde egi-
ten dugu argi eta garbi, abeltzaintza eta arrantzari
ematen zaizkien diru-laguntza haundien aldean.
Praktika hauek animalien ongizatea ez dute erres-
petatzen eta, gainera, ingurunean kalte izugarriak
sortzen dituzte.

Nekazaritzak lehiakortasun eremuan aurrera egin
behar du, bere gaitasun produktiboa eta negozia-
zioak hobetuz eta, aldi berean, merkaturatze es-
trategia berrietara moldatuz. Bertako produktuen
nekazaritza sektoreak, adibidez, aukera handiak
eskaintzen ditu. Horregatik Administrazioaren in-
plikazioa ezinbestekoa da sektore honen sustape-
nean.

Nekazaritzaren lehiakortasun diagnosi bat egitea
beharrezkoa da. Hau enpresen finantza eta anto-
lakuntza-analisien eta jarduten duten merkatuen
azterketen bitartez egingo da, prezioetan eragi-
na baitute. Anlisi hauen emaitzek hobekuntza
programak sortzea ahalbidetuko dute eta arazo
eta beharrak konpontzeko proiektuen garapena
erraztuko dute. Administrazioek erabilgarri dituz-
ten neurri posibleak erabili behar dira nekazarit-
zaren etorkizuna bermatzeko: berrikuntzaren eta
formakuntzaren bultzada eta inbertsiori laguntzak
emanez, adibidez.

Nekazaritzaren iraunkortasuna bermatuko duten
prezio-tarte batzuen negoziazio eraginkor baten
alde egin nahi du Alderdi Animalistak. Modu honetan
elikadura sektore lehiakor eta etiko bat sort-
zeko pausuak eman ahal izango ditugu. Elikadura
Burujaibetza planen oinarriekin bat gatoz.

Hurrengo neurriak defendatzen ditugu:

- **Europar Batasunari gure Autonomia Erkidegoetako nekazal-sektorearen biziraunkortasuna eta etorkizuna bermatzen duen Nekazaritza Politika Bateratuaren neurriak aplikatzea.**
- **Nekazaritzak jasotzen dituen laguntzak handitzea eta abeltzaintzak jasotzen dituenak jaitzea.**
- **PFEZ-aren kuota autonomiko osoaren %40a kentzea 2015 edo 2016ean sortutako nekazaritza kooperatibetako bazkideei, 4.000 euro eta 2 urtez jarraian gehienez. Jarduerak gutxienez 3 urtez jarraitu behar du.**
- **PFEZ-aren kuota autonomiko osoaren %40a kentzea 2015 edo 2016ean lehen aldiz kontratu mugagabe eta lanordu osokoa sortzen badute, 4.000 euroko kenketa eta 2 urtez jarraian gehienez. Jarduerak gutxienez 3 urtez jarraitu behar du.**
- **Nekazal produktuen biltegiatze eta mantentzei laguntza neurriak ematea.**
- **Fruta eta barazkien komertzializazioan garrantasun handiagoa bermatzen duten neurriak bultzatzea, sektorearen parte-hartzea bultzatuz.**
- **Nekazaritza jasangarri bat bultzatzea, aurrerantzean jarduera honek jarraipena izan eta animalien interes eta beharrak errespetatuko dituen.**
- **Jarduera industrialek kaltetutako lurrak birgaitzea.**
- **Bertako produktuen kontsumoa bultzatzea eta lehenestea, garraio kostu eta kutsadura saihestuz.**
- **Zergei dagokienez despenalizatzea eta energia berriztagarriak diruz laguntzea hauetan oinarritzen baitira presio eta emari etengabeko ureztatze-sistema adimentsuak. Sistema hauek ura aurreztu, eraginkortasuna hobetu eta ekologikoak dira.**
- **Elikagaien sektorean gailentzen den ekonomia modeloaren ondorioz kalitatezko eta inpaktu ekologiko baxuko elikagai osasuntsuak lortzea zaila da. Ondorioz produktu ekologikoei bultzada ematea proposatzen dugu, diru-laguntzen bitartez kimikorik gabe era jasangarrian produzitu dezaten.**

2.8 SOLDATA DESPAREKOTASUNAREN MURRIZKETA

Sexuen arteko soldata desparekotasuna handitzen ari den arazoa da eta Euskadin emakumeek %25 gutxiago kobratzen dute jada, Espainiako bataz-bestekoa baina gehiago. Arazo honi aurre egiteko Emakunderi baliabide eta konpetentzia nahiko emango zaizkio.

2.9 ERREFORMA FISKALA

Benetan progresiboa den erreforma fiskal bat bultzatu nahi dugu eta ondasun handiei zerga berezi bat aplikatzea. Desberdintasun ekonomikoak murriztea eta hiritar bakoitzak zor duena ematen duela ziurtatzea da neurri hauen helburu nagusia.

2.10 IRUZUR FISKALAREN AURKAKO BORROKA

Diru-zuriketaren, lan-iruzur eta fiskala eta paradisu fiskaletara doan diru ihesaren aurkako borrokan baten eraketa sustatu nahi dugu, Administrazioari baliabide ekonomiko eta teknikoak helburu honetara bideratuz. Helburu hau betetzeko Justiziarri beharrezkoak zaizkion giza-baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoak erabilgarri izatea proposatzen dugu. Zerga-paradisuekin erlazioa duten enpresek ezingo dute parte hartu kontratu publikoetan.

Era berean Alderdi Animalista ustelkeriaren aurkako metodoen hobekuntzaren alde egin nahi du, epaitegiei hau borrokatzeko baliabideak emanez. Legeriaren erreforma iruzurra borrokatzen dutek horiek erabilgarri dituzten baliabideen handitzearekin batera joan behar duela uste dugu.

2.11 KONFIANTZAZKO KARGUEN MURRIZKETA

Klase politikoak konfiantzazko karguen izendapenen gehiegizko erabilera egin du, ez soilik jarduera indibidualekin erlazioa duten eremuetan, baizik eta baita enpresa publikoen zuzendaritzan ere. Nahieran aukeratutako karguen murrizketaren eta, aldi berean, Administrazioaren funtzionario taldeen barnean prozesu zorrotzen bitartez politikarekin erlazioa ez duten pertsona profesionalak aukeratzearen alde egin nahi du Alderdi Animalistak.

2.12 LAGUNTZA SOZIALEN MANTENTZEA

Krisi ekonomikoak gizartearen zati ahulagoan izan dituen efektu negatiboak desagerrarazteko neurriak hartzea proposatzen dugu, aukera berdintasuna bermatuz.

2.13 ETXEBIZITZA

Autonomia Erkidegoaren etxebizitza politika baten garapena babesten dugu, baliabide gutxiko familiek pairatzen dituzten etxe-kaleratzeekin bukatzea eta etxebizitza eskubidea bermatzea helburu izango duena.

Autonomia Erkidegoaren etxebizitza politika horren testuinguruan hurrengo proposatuko dugu:

- **Banku eta hauen esku dauden higiezin agentzienak diren pisu hutsak 18 hilabeteko epean desjabetzea.** Inposizio honek Banku Entitateak neurrigabeko etxe-kaleratzeak egitea ekidingo du, kaleratzeak sufritzearen dauden familiekin negoziatutako irteerak bultzatuz.

- *Entitate hauen etxe hutsak Administrazio Publikoari ematea hauek helburutzat zuten funtzio soziala ez badute betetzen. Modu honetan Administrazioak "alokairu sozial" moduan alokatu edo behar bereziak dituzten familiei baldintza onuragarrietan salduko dizkie.*
- *Etxebizitzaren Bulego bat irekitzea, laguntza juridiko, kontratuen analisia eta hiritarrei atentzio eta informazioa eskaini ahal izateko. Bulego honek bere baitan izango du Etxebizitzaren Behatokia, etxebizitzaren eta hauen erabilera, ikuspuntu, hipoteka exekuzio eta beste beharren xehetasunezko ikerketa bat egingo duena.*

2.14 OINARRIZKO GAS, UR ETA ARGINDAR-HORNIDURA ESKUBIDEA

Baliabide gutxiko pertsonen hornidura hauen zerbitzua bermatzea babesten dugu. Horretarako hornitzaileak diren enprekin akordioetara heltzea proposatzen dugu, laguntza metodo eta kontsumoen kostuetan deskontuak lortzeko helburuekin.



EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
OINARRIZKO PROGRAMA

3

OSASUNGINTZA

ZURE BOZKA, BERAIEN AHOTSA

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



3 / OSASUNGINTZA

Beharrezko zaien orok osasun zerbitzu eraginkor bat eskuragarri izatea defendatzen dugu. Ordainketa partekatuaren kontra gaude, horrek Gizarte-Segurantzan atentzioa jasotzen duen bakoitzean ordaindu beharra eragiten baitu. Osasunerako Mundu Erakundearen arabera osasun-gastua handitzera eramaten du sistema publikoa eta hiritarren osasuna kaltetzen du, osasun-zerbitzuak erabiltzearen asmoa kentzen baitu.

3.1 OSASUNGINTZAREKIKO GURE PROPOSAMEN ELEKTORALAK HURRENGOAK DIRA

Osasun zerbitzu publikoaren babesa. Azken urteetako etengabeko murrizketek osasun zerbitzu publikoen kalitatea kaltetu dute hein handi batean, eta zerbitzu hau erabiltzeko hiritar orok duen eskubidea kolokan jarri du. Ospitaleetako solairu osoen itxiera, oheen murrizketa edo itxaron beharreko denboren handitzea ondorioetako batzuk dira. Egoera honi buelta emateko neurri sendoak behar ditugula uste dugu proposamen hauek lehenetsiz:

- **Ezinduen, gaixo kronikoen edo zahar etxeetan eskaintza publikoa handitzea.**
- **Ebakuntza, diagnosi-froga eta kontsulten itxaron denborak murriztea.**
- **Ospitaleetan denbora luzeko gaixoen geletan oheak jartzea.**

- **Familia-kideei laguntza ematen dieten eta osasun mentalerako zerbitzuen hobekuntza.**

- **Epidemia posibleei aurre egiteko planen berrikuntza.**

3.2 KUDEAKETA PRIBATUA KENTZEA

Gutxinaka ospitale publikoen kudeaketa enpresa pribatuei esleitu zaie. Onura ekonomikoak bilatzen dituzten kudeaketa egiten dute hauek. Etekinak osasunarekiko izan behar direla uste dugunez ospitaleen kudeaketa publikora bueltatu behar dugu.

3.3 KONTSUMO ETA OSASUN OHITUREN INGURUKO INFORMAZIO KANPAINAK

Osasun eskubidea errespetatuz osasun sistemen gastua murrizteko modu bakarra kontsumo eta osasun ohitura onuragarrien difusioaren bitartez egitea da modu bakarra.

3.4 OSASUN-ZENTRO ETA OSPITALEETAN NUTRIZIONISTA LANPOSTUAK SORTZEA

Orokorrean nutrizio aholkuak formakuntza aproposik gabe ematen dira egun, informazio oker bat jasotzeko aukerak handitzen dituena. Eman eta jasotzen den informazioa zuzena eta zorroztasun zientifikoa duena ziurtatzeko ospitale eta osasun zentroetan nutrizionisten lanpostu eskaintza bultzatu nahi dugu, Nutrizio tituludunak beteko dituztelarik.

3.5 LAN OSASUNA

Segurtasun eta osasun neurriak betetzea ezinbestekoa da lanpostu guztietan. Horretarako lan-arriskuen delegatu eta komiteen konpetentziak handitu eta zigortutako enpresen erregistro bat sortzea ezinbestekoa da.



EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
OINARRIZKO PROGRAMA

4

HEZKUNTZA, TEKNOLOGIA
ETA KULTURA

**ZURE BOZKA,
BERAIEN AHOTSA**

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



4 / HEZKUNTZA, TEKNOLOGIA ETA KULTURA

Kalitatezko hezkuntza publikoa hiritar guztien eskura izatea ezinbestekoa da hiritar kritikoak sortu, lanpostuak berdintasunean eskaini eta gure gizarte eredia hobetzeko.

Profesionalizazioa helburu duen hezkuntza publikoa behar dugu, gure gazteriaren etorkizuna hobetu eta hauen gaitasunak ahalik eta modu hobereanean baliatzeko. Krisi ekonomiko egoera honetan gazteak lan merkatutik kanpo uzten dituen hasierako egoera hau aldatu behar dugu.

Gizarteak duen talentua babestearen aldeko apustua egiten du Alderdi Animalistak. Pertsonen gaitasunak garatzeko programak eratuz eta, aldi berean, enpresak lagunduz talentu guztiak emigratu behar ez dezan.

Hezkuntza Publikoaren desegite izugarria ikusi dugu azken urteetan, etengabeko murrizketa, bekak suntsiketa eta unibertsitate tasen igoerekin, besteak beste. Hau ez da krisi ekonomiko honen soluzioa, kontrakoa baizik. Alderdi Animalistak ez du egoera hau onartuko eta hau aldatzea posible dela uste du.

Hezkuntza, kultura eta teknologia berriak erlazio estua dute eta batera landu behar dira. I+G+b-ren aldeko apustua hezkuntza prozesuan ardatz izan behar duela uste dugu. Modu berean internet zerbitzuak eskuragarri izatea bermatu behar da informazio iturria garrantzitsua baita.

4.1 KALITATEZKO HEZKUNTZA PUBLIKO BATEN DEFENTSA

Hezkuntza publikoa denon eskubidea da gizarte justuago batera aurrera egiteko. Hurrengo neurriak defendatuko ditugu:

- **Hezkuntza tramo guztietako beka mantentzea.**
- **0 eta 3 urte bitarteko umeentzako eskaintza publikoa nahikoa izatea.**
- **Lehen eta bigarren hezkuntza eta Batxilergoan testuliburuak doakoak izatea.** Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzaren defendatzen dugu testuliburu koordinatuak sortu eta copyleft moduan libreki zabaltzeko. Neurri honen familia bakoitzak ehunka euro aurrezteko ahalbidetuko du.
- **Eskola gastuei aurre egiteko gai ez direla demostratu dezaketen familientzat garraio eta jangela gastuak doakoak izatea.**
- **Haur-eskola eta Lehen Hezkuntzako ikasleek zerbitzu pedagogikoak erabilgarri izatea.**
- **Baztetuak diren alorretan (kirola, zientzia, artea,...) talentua identifikatu eta babesteko duen Talentuaren Gestio Zentroa sortu edo hezkuntza programen baitan honetarako sailak sortzea.**
- **Gazteen gaitasunak garatzea helburu duten eskolatik kanpoko jardueren babesa.**

- *Bigarren Hezkuntzako zentro publikoetako Orientazio Zerbitzuak hobetzea Psikologia eta Pedagogia lanpostuak sortuz. Diskriminazio egoerak ekiditea beharrezkoa da bi kasuetan.*
- *Mendekotasuna duten adingabekoei eta hauen familiei gaztetatik atentzioa bermatzea. Honek bere baitan hartzen ditu prebentziorako, diagnosi azkarrerako edo 0 eta 6 urte artekoen arrisku egoerei baliabideak martxan jartzea. Ikasle hauen eskolatzeari ohiko hezkuntza zentroetan izatea bilatu behar dugu hezkuntza sistema inklusibo bat eraikiz.*
- *Nazioarteko eta nazio barruko adopzioen inguruko politika baten garapena. Harrera-erakundeak bultzatuko dira behin-behineko konponbide bezala adoptatutako pertsonaren arabera, ezintasun baten aurrean adibidez.*

4.2 LIBURUTEGI PUBLIKOAK KULTURA DIFUSIO ZENTRO BEZALA ERABILTzea

Kultura difusioan liburutegiek egiten duten lana babesten dugu. Teknologia berrien erabilera zabaltearen ondorioz, zoritxarrez, liburutegietara gerturatzen direnak gero eta gutxiago direla ikusten dugu. Liburu biltegi izatetik haratago liburutegi publikoek etorkizuna badutela uste dugu, kultura metatze eta sortze espazio bezala funtziona baitzakete, erakusketa, taller eta beste jarduerak posibleak har ditzaketan topalekuak baitira.

4.3 GAZTEENTZAKO AISIALDI ALTERNATIBEN ALDEKO APUSTUA

Aisialdi osasuntsu eta doakoaren alde egin nahi dugu, bai gazteei zuzenduta dagoena, baita langabe edo baliabide gutxiko pertsonentzat. Horretarako hurrengo proposatzen dugu:

- *Zinema, musika, dantza eta arte jaialdiak sustatzea.*
- *Museo publikoetara sarrera doakoa izatea langabe, pentsiodun eta gazteentzat.*
- *Gazte elkarteek jarduera kultural eta aisialdi jarduerak garatzeko baliabideak eskuragarri izatea.*
- *Mendekotasuna duten pertsonen beharretara moldatzea antzoki eta zinemak, pelikulak audio deskribapenekin emango dituztenak, adibidez.*
- *Autoretza babesten duen webgune baten sorrera, non gazteek beraien obrak erakusteko gai izango diren. Administrazioak webgune honen sustapen eta hedapena egingo du, bertako zinema zuzendari, idazle, margolari, poeta, musika talde eta beste edozein artistaren lanak ezagutzera ematera helburua izango duena.*
- *Autonomia Gobernuen menpe dauden kultura eta kirol zentroen gaueko eta asteburuetako ordutegiak sustapena.*
- *Doako aisialdi, kultura eta kirol eskaintza gazteentzat Administrazioaren esku.*

4.4 TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia berriak gizartearen zerbitzura egon behar dutela uste dugu eta kultura eta informazioa jasotzeko mekanismoa bermatzen duten lanabes izan behar dutela. Komunikabide talde handien informazioei alternatiba nagusia internet da. Hurrengo neurriak babesten ditugu:

- **Internetera konektatzeko puntuak sortu, kablerik gabeko komunikazioa zabaldu eta informazio giden eraketa.**
- **Posible den kasu guztietan Administrazioak software librea erabiltzea.** Honek diru publikoaren aurrezte handia ekarriko du.
- **Administrazioaren informatika sailek bere software propioa sortzea.**
- **Administrazioak eskatzen edo ematen dituen dokumentuetan estandar irekiak erabiltzea.**
- **Banaketa Librepean plazaratzea Administrazioak garatutako tresna eta materialak.**
- **Banaketa Libreko lizentziapean artistek beraien lanak publikatu ahal izateko web gune baten sorrera.**



EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
OINARRIZKO PROGRAMA

5

BERDINTASUN
POLITIKAK

**ZURE BOZKA,
BERAIEN AHOTSA**

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



5 / BERDINTASUN POLITIKAK

5.1 GIZON ETA EMAKUMEEN SOLDATA BERDINTZEKO PAKTU SOZIALA

Gizon eta emakumeen eskubideak berdinak diren gizarte bat sortzea da gure helburuetako bat. Hori lortzeko, agente sozial desberdinen arteko akordioa ezinbestekoa da, soldaten diskriminazioarekin bukatu eta ardura handiko postuetan emakumeen presentzia ahalbidetuko duena.

5.2 ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEN LAN ESKUBIDEA

Aniztasun funtzional fisiko, bisual, entzumenezko edo intelektuala duten pertsonen gehiengo lan merkatuan integratu daiteke. Horregatik hurrengo proposatzen dugu:

- **Aniztasun funtzionala duten ikasleek lan-formakuntza ikastaroetan parte har dezaten mekanismoak ahalbidetzea, formakuntza postu eta materialak moldatuz.**
- **Formakuntza beharren analisia Ekonomia, Berrikuntza, Zientzia eta Lan sailen politikek hauen emaitzak aplikatu ditzaten.**
- **Aniztasun funtzionalaren inguruko ardura soziala bultzatuko duten enpresa topaguneak sortzea, lan esparruan integratzeko eta politika hauen onura ekonomiko eta sozialen inguruan informatzeko.**

- **Aniztasun funtzionala duten pertsonen lan integrazioari buruz enpresak informatzea.**
- **50 langile baina gehiago dituzten enpresek lanpostuen %2 aniztasun funtzionala duten pertsonen utzi behar dizkiete. Honen inguruko ikuskaritzak maizagotu.**
- **Oztopo arkitektonikoen araudia betetzen dela zaintzea eta eraikin publikoak gai honetan eredu izatea.**
- **Aniztasun funtzionala duten pertsonak laguntzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeekin batera lan egitea, lan merkatuan intserzio lanak egiterakoan aholkularia izan daitezten.**

5.3 GENERO BERDINTASUNA

Azken urteetan aurrerapenak gertatu badira ere, emakumeak diskriminatuak eta biolentzia jasaten jarraitzen dute. Osasun Ministerioaren datuen arabera 2014ean 54 emakume hil ziren Espainian genero indarkeriagatik. Soldatarekiko emakumeek %24 bat gutxiago jasotzen dute balio berdineko lanak egitearen truk.

Berdintasunezko eta sexismorik gabeko gizarte bateruntz aurrera egiteko helburuarekin hurrengo neurriak defendatzen ditugu:

- **Bere lana egiteko kompetentzia eta diru nahikoa izango duen Berdintasun Saila sortzea.**

- *Berdintasun aholkularitza kontseilu bat sortzea, genero berdintasunaren eremuko elkar-teak bilduko dituen. Aldi berean kontseilu honek irratia eta telebista autonomikoen kontseiluen ordezkarien parte hartzea izango du.*
- *Sail bakoitzean berdintasun behatokia izatea. Berdintasun araudiaren betetze eta honen funtzionamendu zuzena ziurtatuko du. Berdintasun Sailari urtero autonomia departamentu bakoitzaren inguruko txosten bat entregatuko dio.*
- *Emakumeak lan munduan sartzea ahalbidetuko dituzten neurriak, lan-segregazioa eta soldata desberdintasunak desagerraraztea helburutzat jotuta.*
- *Lan eta bizitza pribatua bateragarri izateko akordioak lortzea, generoagatik diskriminatu gabe.*
- *Genero indarkeriaren ondorioz beraien lanpostuak uztera behartu dituzten emakumeei, batzuetan beste hiri batzuetara mugitu behar duten horiei bereziki, lana bilatu eta aurkitzeko laguntza ematea.*

5.4 SEXU ANIZTASUNA

PACMA edozein diskriminazioren aurka borrokatzearen aldekoa da. Norbanako guztiak errespetatzea gure oinarria den ehinean, hauen jatorria, espeziea, arraza, sexua edo sexu-orientazioa zein den kontuan hartu gabe, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioak proposatutako 11 puntuak onartzen ditugu. 11 puntuen laburpena hurrengoa da:

- *Transexualitatearen lege integrala.*
- *Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen berdintasunaren aldeko eta orientazio-sexual edo genero identitatearen aurkako legea.*
- *Emakumeak bakarrik edo emakume bikoteek Osasun Zerbitzu Publikoan lagundutako ugalketa zerbitzua erabilgarri izatea eta LGTB pertsona guztien adopzio eskubidea bermatzea.*
- *Instituetan sexu, familia edo genero dibertitatearen inguruko formakuntza eta informazioa banatzea helburu izango duten planen eraketa eta eskola mediazio protokoloen sorrera.*
- *LGBTB pertsonen Atentzio eta Informazio Zerbitzua sortzea.*
- *Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen aurkako diskriminazioa ekiditeko neurriak sortzea eta hauen Giza Eskubideak bermatzea.*
- *Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Harrotasun egunak Erkunde Ofizialen babesia izatea.*
- *Pertsona guztien osasun eskubidea bermatuko duen Osasun Zerbitzuaren defentsa.*

5.5 ANIZTASUN FUNTZIONALA

Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiar Komiteak (CERMI Gaztelaniaz) proposatzen dituen zenbait proposamen onartzen ditugu. Besteak beste hurrengoak:

- **Aniztasun funtzionala duten pertsonen irisgarritasun unibertsala, enplegua eta formakuntza ziurtatuko dituen Autonomia Plan baten eraketa.**
- **Aniztasun Funtzionala duten pertsonen eta hauen familien arreta sozio-sanitarioaren Autonomia Plan bat onartzea.**
- **Gutxieneko Errenta programetan baliabide gutxiko aniztasun funtzionala duten pertsonak onartzea.**
- **Eraikin publikoetan irisgarritasuna bermatuko duten neurriak.**
- **Aniztasun funtzionalaren inguruko informazioa komunikabide autonomikoetan inklusiboa eta positiboa izatea.**

5.6 MIGRATZAILEAK

Migrazio politikak berrikustea ezinbestekoa ikusten dugu, hauek guztion Giza Eskubideen babesa eta hiritar guztien eskubide sozialak bermatu behar baitituzte. Afrikatik datozen migraxio fluxuak, sahara azpiko herrialdeen egoera ekonomiko eta sozialaren ondorioz sortzen dira eta batasunaren neurri justu eta Legediaren Barruko neurrietan kontuan hartu behar diren faktoreak dira.

Era berean Autonomia Erkidegoak, eta batez ere migrazio fluxuen ate diren horiek, laguntza sozial eta migratzaileen integrazio neurri azkarrak aurrera eraman behar dituela uste dugu, arrazismoa, xenofobia eta eskusio soziala ekiditeko.



EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
OINARRIZKO PROGRAMA

6

DEMOKRAZIAREN
BIRSORKUNTZA ETA
ZUZENBIDE ESTATUA

**ZURE BOZKA,
BERAIEN AHOTSA**

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



6 / DEMOKRAZIAREN BIRSORKUNTZA ETA ZUZENBIDE ESTATUA

Azken urteetan gure demokraziaren atzerapauso eta degradazioaren testigu izan gara. Klase politikoa eta hiritargo oso urrun daude bata bestetik.

Parte-hartzea ezin da lau urtean behin bozkatzera mugatu. Geroz eta gehiago gara gure kezkakoak diren gaien inguruan erabakitze eskubidea izatea nahi dugunok. Elkarre-ehuna garatu eta kontsulten bitartez hartutako erabakiekin parte-hartze handiago bat eragingo dugu, Zuzenbide Estatuari ezinbesteko zaiona.

Hurrengo proposamenak egiten ditu Alderdi Animalistak:

6.1 DEMOKRAZIA PARTE-HARTZEDUNA

Demokrazia parte-hartzeduna dela bermatzeko eta lau urtean behin bozkatzera mugatuko ez dela ziurtatzeko hurrengo neurriak defendatzen ditugu:

- **Legegintzako herri-ekimenak aurkezteko erraztasunak ematea.** Gizarte parte-hartzaileago baterantz aurrera pausoa emateko horrelako ekimen bat aurrera eramateko sinadura nahikoaren zenbatekoa jaistearen proposatzen dugu.
- **Diru publikoarekin zer egingo den era demokratikoago baten bitartez egitea, aurrekontu parte-hartzaileen bitartez adibidez.**

6.2 HIRITARGOAREN ESKUBIDEAK BERMATUKO DITUEN JUSTIZIA ADMINISTRATIO ERAGINKORRA

Epaitegien asebetetzea arazo larria da, eta honek prozesu judizialak urteak luzatzea eragiten du. Epaitegietan tramiteak azkartuko dituzten neurrien aplikazioa defendatzen dugu, betiere prozesu justu bat izatearen eskubidea bermatzen denean.

Gobernu Autonomikoak zigorrak injustiziak ekiditeko neurri bezala ulertu behar ditu, eta ez dirua lortzeko modu bezala. Zigor espediente administratiboak garantia guztiak bete behar dituzte, zigor injustuak eta gerora datozen errekursoak ekidinez.

6.3 HAUTESKUNDE-LEGEAREN ERREFORMA

Egungo hauteskunde-lege autonomikoek alderdi handien interesak laguntzen dituzte, ordezkaritza gabeko alderdiei bozka kenduz. Hiritargoaren ordezkaritza justu bat babesten duen hauteskunde-lege bat defendatzen dugu. Horregatik babesten dugu:

- **Hauteskunde-sistema proportzional bat helburu izanda hauteskunde-mugarekin bukatu nahi dugu.** Alderdi politiko gehienek eta hauei bozka ematen dietenen hiritarren diskriminazioa da hau eta sistema demokratikoari min egiten dio. Parlamentuen eserlekuak proportzionalki banatzen dituen hauteskunde-lege baten alde egingo dugu lan, bozka kopurua eta eserlekuak parekoak izan eta hauteskunde-muga desargerrazteko. Azken hau guztiz errealista da, Europar Parlamentuan ez baita existitzen.

- *Hauteskundeak eta gero alderdiek botoen arabera laguntza ekonomikoa jasotzea, ordezkaritza lortu edo ez, beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala. Bidezko finantziazio-sistema justu hau gizartearen babesa duten aukera politiko guztien jarduerak ahalbidetzen ditu, ikuspegi eta ideologia desberdinak existitzeko berdintasun aukerak izatea eragiten duena.*
- *Komunikabide publikoak berdintasunez erabiltzeko aukera bermatzea. Hauteskundeetara berdintasun egoeran parte hartzeko eskubidearen baitan, aurkezten diren alderdi guztiek emisio minutu berdinak izan ditzaten defendatzen dugu, aurretik izan dituzten hauteskunde emaitzak kontutan hartu gabe.*
- *Hauteskundeetara aurkezten diren alderdi guztien kanpainen estaldura mediatikoa berdina izatea.*



EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
OINARRIZKO PROGRAMA

7

GARRAIOA ETA LURRALDE
ANTOLAMENDUA

**ZURE BOZKA,
BERAIEN AHOTSA**

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



7 / GARRAIOA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Lurra ondasun sozial bat da. Horregatik lurralde antolamendua beharren eta baliabide naturalen analisi batean oinarritu behar da, errentagarritasun ekonomia eta errentagarritasun soziala bermatuz eta garapen sozialaren aukerak era justuenean bananduz. Lurralde antolamenduaren garapena orekatua izan behar du periferia eta zentroaren arteko erlazioak berkonfiguratzeko.

Errepideetan ibilgailu gutxiago ibiltzea bilatzen duen garraio politika bat bilatzen dugu. Urtero milaka pertsona eta animalia hiltzen dira urtero istripuetan edo harrapatuak. Hiritargo eta inguru-nearentzat kaltegarria da gainera hainbeste ibilgailuen kutsadura.

Beharrezkoa iruditzen zaigu energia trantsizio prozesu bat eragitea, aurrezte, energia eraginkortasun eta energia berriztagarriak ardatz bezala hartuz.

7.1 IRISGARRITASUNA

Zirkulazioa eta irisgarritasun askatasuna bermatzeko helburua duten hurrengo neurriak defendatzen ditugu:

- *Muga arkitektonikoak ezabatzea, garraio publikoetara irisgarritasuna hobetu eta lan guzuetan nahiko aparkaleku berezi sortzea.*

- *Eraikin berriak eraikitzen dihardutenei eta muga arkitektonikoak ezabatzen dihardutenei zuzenduta dauden irisgarritasun kanpainak sortzea.*
- *Eraikin publikoetan irisgarritasun baldintzen analisia egitea auditoretza baten bitartez.*
- *Aniztasun funtzional bisuala duten pertsonen GPS edo pertsona gidariak erabilgarri egitea, eta animaliak lan hauetatik kentzea.*

7.2 IBILGAILU-SEGURTASUNAREN ALDEKO INFORMAZIO KANPAINAK

Ibilgailuen erabilpenak dituzten arriskuak zabaltzea eta, aldi berean, beste animaliak seguru bi-daiatzeko informazioa zabaltzea.

7.3 GARRAIO-PUBLIKOA

Egungo mugikortasun modelook gure bizitzakalitatean eta ingurunean eragiten du larriki. Garraioak berotegi efektua sortzen duten gasen emisioaren zati handi bat eragiten du, atmosferaren kutsaduraren ondorioz gaixotasun ugari sortzen ditu eta soinu-kutsadura eragiten du. Honetaz gain garraiobideei bideratutako azpiegituren eraikuntzak ingurunean eragin handia dute. Bestalde, merkantziak gero eta bolumen eta distantzia handiagotan garraiatzen dira.

Horregatik, motorrik gabeko medioen eta garraio publikoan oinarritutako sistema bat defendatzen dugu, tren ardatz hartuta. Mugikortasun beharrak eta hauen eraginak ekiditeko Espainiako

erakunde nagusiek "Lurraren aldeko programa"n egindako proposamenak babesten ditugu:

- **Mugikortasun jasangarri plan autonomikoak bultzatzea udalerriekin eta hauen politika urbanistikoekin lankidetzan.** Motor-mugikortasuna murriztea izango da hauen helburuetako bat.
- **Motor gabeko mugikortasun planak bultzatzea eta, bizikletaren kasuan, hauek garraio-publikoarekin konbinatzea.**
- **Oinez eta bizikletaz mugitzeko eskualde eta plan lokalak eratzea.**
- **Azpiegitura handien moratoria hauek dituzten eskaera txikiagatik.**
- **Beti benetako eskaerarekin bat doazen garraiobide garbi eta eraginkorrak bultzatzea eta hiriguneetako garraiobide publikoaren sistema integratuak kontuan hartzea.** Populazio dentsitateak justifikatzen duenean trenak bezalako gaitasun handiko garraiobideak bultzatzea.
- **Hirietan auto pribatuari eskeinitako espazioa eta neurri fiskal zigortzaileak bultzatzea garraio bide mota honen erabilerak behera egin dezan.**
- **Zerbitzu publiko eta udaletan auto elektrikoaren erabilera bultzatzea eta baita hauek behar dituzten karga puntuak sortzea, autokontsumo eta energia garbiez hornituak.**

Aldi berean garraio sare publikoen alde gaude eta hauen tarifak hiritarren egoera ekonomikoari moldatu behar direla uste dugu. Horregatik proposatzen dugu:

7.4 LANGABETUEK GARRAIO PUBLIKOA DOAN ERABILI AHAL IZATEA

Autonomia Erkidego osoan mugikortasuna ahalbidetuko duen abonua bat sortzea, gutxieneko soldata jasotzen ez dutenei eta langabetuei doan mugitzea ahalbidetuko diena. Horrela sektore baztertueta jendeari eta lan bila daudenei lagunduko zaie.

7.5 ERREPIDEETAKO BAZTER-BABESAK ESTALTzea

Bazter-babesek lesio eta hildako ugari sortzen dituzte urtero mozketa eta inpaktuen ondorioz. Lesio eta heriotza hauek murriztuko dituen estaltzea bultzatuko dugu.

7.6 ERREPIDE ETA BESTE AZPIEGITUREN ONDORIOZ HILTZEN DIREN ANIMALIEN KOPURUA MURRIZTEKO NEURRIAK

Animalia basatiak babestuko dituzten neurriak hartuko ditugu. Ingurune naturaletan animaliak askatasunez mugitzea mugatzen dituzten muga ezabaketa, errepide eta trenbideak zeharkatzeko tunel eta zubiak eraikitzea, animalien biziguneak zaitzen dituzten bideen bakarketa eta hildako eta zauritutako animalien kopurua murriztuko dituzten neurriak bultzatuko dira.

7.7 ESPEKULAZIORIK GABEKO ETA PERTSONEN NEURRIRA ERAIKITAKO HIRIGINTZAREN ALDE APUSTU EGITEA

Hirigintzaren burbuilak sortu duen kaltearen inguruan ezer gutxi dago esateko. Azken hamar urteetan aurreko historia osoan baina gehiago eraiki dela esatearekin nahikoa da. Udalek bultzatutako eta Gobernu Autonomikoei onartuta egin den garapen sakabanatu honek jasangarritasun arazo ugari sortu ditu, luraren okupazioa biderkatuz, garraiobideen beharra handituz eta ingurune naturalen kaltea eraginez. Bestalde, eraikitako etxeen gehiengoak ez ditu betetzen eraginkortasun energetiko edo energiaren onura pasiboan erabileraren estandarrak eta ez dituzte bete hiritarren etxebizitza beharrak, egungo prezioei aurre egitea ezinezko baitzaie.



EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO
OINARRIZKO PROGRAMA

8

INGURUMENA

**ZURE BOZKA,
BERAIEN AHOTSA**

ANIMALIENGATIK, INGURUMENAGATIK
ETA JUSTIZIA SOZIALARENGATIK

2016KO IRAILAK 25



Alderdi Animalista
PACMA



8 / INGURUMENA

Ingurunearen babesaren aldeko konpromiso tinkoa du Alderdi Animalistak. Horregatik herrialdeko erakunde ekologista nagusiek (Amigos de la Tierra, Ecologistas en Acción, Greenpeace, SEO Birdlife eta WWF) egindako ingurune-proposamenekin bat egiten dugu. Horietako batzuk aurkezten ditugu heurrengo lerroetan.

Zentzu honetan PACMAK interes altua du espainiar eremu osoan Espainiak onartutako ingurumen-babeserako edozein hitzarmen edo itun era eraginkorren bete dadin nahi du. Fauna eta floraren errespetua barne hartzen du honek eta baita honen inguruko Europar Araudia betetzea. 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluko 92/43/CEE Direktiba bezalako direktiba garrantzitsua, habitat natural, fauna eta basoetako flora babesten dituen betetzea beharrezko dela uste dugu.

Honetaz gain PACMAk suteen aurkako borroka aktibo baten alde eta fracking-aren aurka posizionatzen da.

Animalien defentsaren alde eta ingurumenarekiko PACMAren proposamenak hurrengoak dira:

8.1 PARKE NATURAL ETA KOSTAREN LEGEZKO BABESA

Gure Ondare Naturalari kalte izugarria egin dio legezko babesik gabe egoteak eta horregatik bultzatu nahi dugu araudi eraginkorren aplikazioa, eremu naturaletan bizi diren animalien eskubideak defendatzeko. Turismoa bezalako sektoreei

dagokienez, eremu naturaletan lan egin eta honen dependiente direnak, hobetze, eraberritze eta hauen zerbitzu eta instalazioen esleipen berrien programak bultzatu nahi ditugu.

8.2 NATURA 2000 SAREAN BABES EREMU BEREZIAK SORTZEA

Ingurumen Komunitate-Direktibak betetzea modu erreal eta eraginkorren. Hauek Estatuei IKG-ak (Interes komunitate-Guneak) eta BBEak (Babes Berezikotako Eremuak) izendatzea behartzen die, europar araudiaren helburu den sare ekologiko baten sorrera kontuan hartuz. Sare hau Natura 2000 izena du eta honek babestutako habitat eta espezieen gunez osatuta egongo da eta hauen babes, mantentze eta beregokitze prozesuak bermatuko dituzte autoritateek. Natura eta Bioaniztasun Ondasunaren alde egingo duen ingurumen araudi europarra betetzea bermatuko du PACMAk.

8.3 BATASUNEN ESPEZIEEN BABES BEREZIA

Batasuneko Interes Bereziaren baitan sailkatutako Fauna eta flora espezieen inguruko komunitate-direktiben benetako betetzea, hauen babes maila kontuan hartu gabe (zorrotza edo ez zorrotza). PACMAk Autonomia Erkidegoek gure herrialdea Europar Batasunaren parte den heinean betebeharreko ingurumen araudiak bete ditzaten zihuratuko du.

Zentzu honetan, PACMAk otso iberikoa bezalako espezie esanguratsuen babes eta kudeaketa etiko eta arduratsua eta babesa lehenetsiko du.

8.4 OTSOAREN BABESA

Erkidegoko Direktibetaz gain, Otsailaren 27ko 1998/3 Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Babesaren legeak onartzen du bionaitzasunaren babesa Garapen Jasangarriaren Euskal Estrategiaren ardura saihestezina dela eta honen helburuetako bat ere. Otsoa espezie gakoa dela jakinda, honen biztanleria kontu handiz kudeatzera behartzen gaitu eta ez orain arte egin den sinpletasunarekin, hau da, kalteak erreklamatu direnean (benetakoak izan edo ez) otsoak hiltzea.

Honen adibide da Karrantzan gertatutakoa: 2010ean bailara horretan zortzi eraso gertatu ziren, otsoenak izan zirela soilik hiru izan zirela frogatu (%37,5a) eta eskualdeko ardien %0,03ari eragin ziotelarik. Hau hala izanda ere, otsoak erailteza helburu zuen plan bat jarri zen martxan eta gehiegizko neurri honek debekualdian zegoen otso eme baten heriotza ekarri zuen. Geroargo, aurten-go urtarrilean, otsoak erailtzeko permisua eman zen, gure erkidegoan bizi ziren espezie honetako azken lau norbanakoen heriotza eraginez.

Alderdi Animalistak Erkidegoko Direktibak betetzen direla zihurtatuko duten neurriak bultzatzeko konpromisoa hartzen du, horrela otsoaren ehiza debekatu eta espezie honetako norbanakoak babestuz.

8.5 INGURUMEN AGENTEAREN LANPOSTUA BABESTU

Ingurumen agentearen lana eta bere aitorpena bultzatu nahi dugu, honek duen ondorio guztiekin eta autoritate-agente eta Ingurumenaren Polizia bezala onartzea eskatzen dugu.

8.6 FRACKING-AREN BUKAERA

Puskatze hidraulikoaren bitartez ezohiko gasa ateratzeko lurtean eragin negatibo oso grabeak sortzen dituela frogatu da: hala nola akuiferoen suntsiketa eta lurrikara aukerak handitzea, animaliei kalte egiten dietenak. Lurzoruen kutsadura eragin dezake ere. Teknika honen kontra gaude eta hau praktikan jartzeko egin diren sahiakerak gelditzea eskatzen dugu.

8.7 SUTEEN AURKAKO BORROKA

Baso-suteen aurka egiteko metodorik eraginkorrena hauek aurreikusi eta gertatu baina lehen gelditzea da, prebentzio lanak babestuz. Aldiz, Autonomia Erkidegoek eremu honetako aurrekontuak murriztu dituzte, batez ere langileekiko. Alderdi Animalistak diru gehiago inbertitu eta arrisku denboraldia luzatzearen alde egin nahi du, besteak beste.

Suteak aurreikusteko hurrengo neurriak defendatzen ditugu:

- **Itzaltze lanetarako ematen den diruaren bikoitza erabiltzea prebentzio sistemetan.**

- *Suteen aurkako borroka helburu duten pertsona eta materialak ez murriztea. Aurrekontuak murrizten hasi zirenean zegoen langile kopurua berriz ezartzea.*
- *Sute arrisku denboraldia zabaltzea, ekainaren lehenengotik urriaren 30era arte izango dena. Uztondo erreketeta edo bazka lurrak lortzeko erreketak guztiz debekatuak egongo dira denbora tarte horretan. Gainera, baso eremuetara motordun ibilgailuek debekatuta izango dute sarrera begirale, prebentzio edo itzaltze lanetarako ez bada eta salbuespen permisurik ez da emango.*
- *Basoetatik gertu dauden etxe, herri edo hiri guneetan prebentzio neurriak onartzea eta bultzatzea, bertako biztanleriak bizi duen arriskuaren inguruan informatu, suteak eragin ditzaketen jokabideak erakutsi eta hauen aurkako neurriak zeintzuk diren jakinarazteko.*
- *Sute baten ostean ikerketa sakonak egitea nork eta zergatik sortu dituen jakiteko.*
- *Erretako egurraren komertzializazioa ekiditeko erretako basoan bertan zuhaitzak moztu eta txikitzea.*
- *Piroteknia debekatzea suteek eta praktika honek duten erlazio handiarengatik eta animalei eragiten dien kalteagatik. Jarduerara honek dituen kalteen inguruko informazio kanpainak egingo ditugu.*

8.8 HONDAMENDIETAN ANIMALIAK EBAKUATZEKO PROTOKOLOA

Ebro ibaiaren gorakadak eragindako uholdeak, suteak edo elurak eragindako hondamendiak milaka animalien heriotza eragin dituzte, hauen alde inork ezer egin ez duelarik.

Hondamendi hauek kalte ekonomikoak eragiten dituzte, baina baita milaka animalien heriotza injustua ere, eta hauen interesen alde eta sentitzen duten norbanako bezala tratatzen dituen hondamendietarako protokolo bat egin eta aplikatzea beharrezkoa da.

Ebakuazioa behar duten arrisku egoeretan egun animaliak laguntzera denbora, jendea edo baliabideak erabiltzea debekatuta dago. Abeletxeetan animaliak kaiolaturik eta etxe askotan txakurrak lotuta uzten dira, alde egiteko aukera ez zaie uzten eta urak edo keak itota edo erreta hiltzen dira.

Egoera hauek ekiditeko protokolo zehatz eta bereziak sortzea proposatzen dugu. Helburua sute, uholde edo beste natura katastrofeetan edo puntako tenperatura egoeretan etxean bizi diren edo esplotazioetan dauden animaliak erreskatatzea da. Era berean basatiak diren animaliak laguntzeko neurriak aurkeztuko ditugu.

8.9 PUNTAKO KLIMA EGOERETARAKO ANIMALIA BASATIEI LAGUNTZA PROTOKOLOAK

Erakunde desberdinetako zientzalariek onartzen dutenez, ONUkoak tartean, puntako klima egoerak gero eta ohikoagoak izango dira. Ingurumenak jaso duen erasoaren ondorioz sortu da aldaketa klimatikoa eta honek bai gizaki eta baita beste animalia guztiei eragiten die, aldaketa klimatologikoetara hain azkar moldatzea ezinezko baitzaigu.

Alderdi Animalistarentzat betebeharrak moral eta etikoa eta ekosistemen bizirauteko beharra da basatiak diren animaliak babestu eta laguntzea. Horregatik Puntako Klima Egoeratan Animalia Basatiei Laguntzeko Eskuhartze Protokoloen (PIAFS gaztelaniaz) garapena beharrezko ikusten dugu.

8.10 ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO BORROKA

Aldaketa klimatikoaren larritasun eta garrantziak maila guztietako ekintza politikoa eskatzen du. Autonomia Erkidegoek aldaketa klimatikoaren aurka borrokatu eta berotegi efektua sortzen duten gasen emisioa gelditzeko modu asko dituzte eremu desberdinetan neurriak aplikatuz: garraiobideetan, energian, abeltzaintza eta nekazaritzan, industrian edo eta hondakinen kudeaketan. Beharrezkoa da lurralde guztietan aldaketa klimatikoa erabaki guztien ardatz politiko transbersala izatea.

8.11 BERRIZTAGARRIA, JUSTUA ETA DEMOKRATIKOA DEN ENERGIA MODELOA

Energia aldaketak dakartzan erronken, energia dependentziaren eta pobrezia energetikoaren aurrean gero eta larriagoa da Autonomia Erkidegoek %100ean berriztagarria den energia modelo justu eta demokratiko bat sustatzea. Energia garbietara trantsizioa ahalik eta azkarren egiteko politika aktiboak aurrera eramatea beharrezkoa da.

Horretarako beharrezkoa da:

- **Maila autonomikoan eta eskualdeetako energia agentzien bitartez udalerrietan energia modelo berrira trantsizioa egiteko plan integralak bultzatzea.**
- **Eraikin Publikoetan, Erkidego Autonomoaren esku dauden etxebizitzetan eta kontsumo eta nekazari eremuetan energia berriztagarria sortzeko puntuak ahalbidetzea.**
- **Energia fosilak behar dituzten berotze sistemak energia berriztagarri eta eraginkorrak erabiltzen dituztenengatik aldatzea.**
- **Autokontsumoa bultzatzea, sortzen den energia fotovoltaikoren distribuzioa komunitarioa izatea eta ur jausi txikiak berreskuratzea.**
- **Kontsumo berriztagarrien inguruan dauden aukerak ezagutzera eman.**
- **Eraginkortasun eta aurrezte-energetiko gaietan ETE, industria eta komertzioari instituzioen laguntza eta laguntza ekonomikoa eskaintzea.**

- *Autonomia Erkidegoak kudeatzen dituen sistemetan teknologia eraginkorrenak erabiltzea (Argiztapen publikoa, eraikin publikoen klimatizazioa eta ur sistemetan).*
- *Auzokide komunitateek etxebizitzen, eraikin birgaitze eta hiri berriztatzeen Estatuko Sustapen Planaren (RD 233/2013) funtsak jasotzeko erregulazio autonomikoak martxan jartzea.*
- *Berriztatze modelo integral eta sakonak sustatzea, eraikinen gastu-energetikoaren murrizketa %70erarte izatea helburu duena.*
- *Bizitza-erabilgarritasun aldia gainditu duten zentral nuklearren itxiera.*

8.12 HONDAKINEN PRODUKZIO MURRIZKETA ETA BALIABIDEEN ERABILERA JASANGARRIAREN SUSTAPENA

Korporazio handiek bizitza kalitatea produktu eta zerbitzuen gehiegizko kontsumoarekin erlazioa dutela sinetsarazi digute. Modu honetan baliabide naturalen erabilera, eraldaketa eta usiatze maila ezin jasangarrietara iritsi gara, egungo kontsumoari aurre egiteko mundu eta erdi behar izatera iritsi garelarik. Produktu gehienak bizitza motzekoak dira, behin erabilia botatzeko direnak ere asko dira eta hauek hondakin kopuru izugarri bat sortzen du, hauen kudeaketaz arduratzen diren udalerrri eta Autonomia Erkidegoei arazo larri bat sortuz.

8.13 2020 URTERAKO BIOANIZTASUN GALTZEA GELDITZEA

2015eko martxoan Europaar Komisioak zenbait Autonomia Erkidegori jakinera eman zien natura kontserbazio direktiba ugariren aplikazioetan atzerapenak eta beste gabeziak antzeman zituela. Hau maila autonomikoan orokortuta dagoen arazo baten beste adibide bat besterik ez da: bioaniztasunak lurralde horretan bizi diren biztanleei ekartzen dien onura eta elementu positiboak duten gaitasuna ez ikustea. Konpetentzia hauek seriotasunez ez hartzea eta lurralde eta ekonomia modeloak naturarekin bat ez egiteak arazo desberdinak dakartzate: Europar Batasunaren funtsak ez jasotzeko arriskua eta estatu edo helburu europarrak betetzea arriskuan jartzea; aldaketa klimatikoaren ondorioei aurre egiteko gaitasuna murriztea; pertsonen ongizatea eta paisaia naturalen erakargarritasuna kaltetzea eta mundu mailako edo europako erreferente izateko aukera galtzea.



8.14 IBAI GARBIAK ETA URAREN AURREZPEN ERAGINKORRA

Autonomia Erkidegoen eskuetan dago hein handi batean Espainiak araudi europearra eta jasangarritasun printzipioak betetzeko ur politiken trantsizioa. Autonomia Erkidegoen eskuetan dauden ur masen egoera zuzena bermatzeko sektore politikak, uraren kontsumoa jaistea, naturalak diren ur emariak bermatzea eta eskuragarri dagoen uraren kalitatea bermatu behar dituzte. Nekazaritza, hirigintza, turismo eta industriaren ardura duten administrazioek Eremu Publiko Hidraulikoa eta uholde lautadak errespetatzea, gehiegizko erabilera edo kutsadura difusoa ez gertatzea bermatu behar dute. Urtegien ordeztu uraren aurrezpen eta garbiketa bultzatu behar da ondasun publiko honen gestio publikoaren bitartez.

8.15 BASOEN BABESA

Gure basoen babes eta kudeaketa autonomien konpetentzia eskusiboa da. Mendiei duten garrantzia eman, baso suteak aurreikusi, eremu degradatuak berreskuratu eta gure basoek dituzten ingurumen baloreak zabalduko dituen politika bat behar dugu.

8.16 PRODUKTU KIMIKO ARRISKUTSUAK MURRIZTEA

Kutsadura kimikoa egungo arazo ekologiko nagusietako bat da eta Autonomia Erkidegoek gizakiak eta beste animaliek sustantzia hauetara duten esposizioa murriztu dezakete. Sustantzia hauetako batzuk oso arriskutsuak izan daitezke. Konposatu organiko iraunkorrak, metal astunak edo hormona alteratzaileak dira hauen adibide, gure osasunean eragin handia izan baitezakete kontzentrazio oso baxuetan.

Plagizida, plastiko, kosmetiko, garbikari eta eguneroko erabiltzen ditugun beste produktu askotan daude, adibidez, hormona alteratzaileak, eta oso arriskutsuak izan daitezke emakume haurdun, ume edo nerabeetan. Parke eta lorategiak fumigatzea edo plagiziden erabilpena zentro publiko eta ingurune itxietan hiritarrak eragin ditzakete. Hiriguneetan herbizida erabiliena glifosatoa da, Munduko Osasun Erakundeak minbizia sortzeko produktutzat sailkatu berri duena. Beste sustantzia batzuk, neonikotinoideek bezala, polinizatzaile ezinbestekoak diren erleak eta beste intsektuak hiltzen dituzte.

Arazo honi aurre egiteko hurrengoak dira gure proposamenak:

- **Plagizida arriskutsuen erabilera debekatzea.** *Plagen aurkako borroka sistema alternatiboak erabiltzea eta toxikoak ez diren sustantzia kimikoak erabiltzea landare txarren aurka.*
- **Nekazaritza eta lorezaintza ekologikoak bultzatzea.**

- *MOEk minbizia sor dezakeen produktutat sailkatu duenez glifosatoa parke, lorategi edo eskola eta ospitaleetako espazio publikoetan ez erabiltzea.*
- *Hormona Altxatzaile diren produktuen murrizketa lortzeko estrategiak sortu eta aplikatzea, adibidez, erosketa publikoaren bitartez.*
- *Osasun langileei, irakasleei eta kazetariei formakuntza ematea. Arrisku gehiago duten gizaratearen zatiarekin kontaktua duten profesionalek kimiko kutsatzaileak izan ditzaketen ondorioen inguruan informazioa zuzena izan behar dute, sustantzia hauen inguruan ematen diren gomendioak zuzenak izateko.*

8.17 PERTSONA GUZTIEK AIRE OSASUNTUA IZATEKO ESKUBIDEA

Aire-kalitatearen konpetentzia autonomikoa da. Egungo egoera zenbait kutsatzaileekiko hobetu bada ere, beste batzuekiko okerrera jo du eta onargarria izatetik oso urrun dago oraindik. Espainiarren herenak legeak markatzen dituen mailak gainditu dituen airea arnastu du. Munduko Osasun Erakundeak dio, hala ere, hamar hiritarretatik bederatzik arnasten duela kutsatutako airea. Europar Batasunaren analisisen arabera 27.000 pertsona hiltzen dira urtero arrazoi honengatik. Bestalde, Espainiak airearen kalitatearen araudia ez betetzeagatik zigor prozesu ugari ditu irekita eta, beraz, alor honetan ekintza indartsu bat beharrezko eta larria da. Era berean, gehiegizko zaratak gure osasunean eragin oso negatiboa du eta hau murrizteko ekintzak ez ditugu ahaztu behar.

8.18 INGURUMEN ETA JUSTIZIA SOZIALEAN OINARRITUTAKO POLITIKA KOMERTZIALAK SUSTATZEA

Azken hamarkadan eman den distantzia handiko elkar-truke komertzialen gorakadak ingurumenarekiko ondorioak eta ondorio sozial negatiboak sortu ditu. Merkantzien gehiegizko garraioak, produkzioaren deslokalizazioa, espekulazioa eta, orokorrean, pertsonen eta naturari zuzendutako merkataritza beharrezko merkatuei zuzendutakoa sortu da. Hau aldatu nahi dugu, ingurumen eta justizia sozialak politika komertzialen erdigunean jarri. Merkataritzaren norabide handiak beste eremu batzuetan erabakitzen badira ere Autonomia Erkidegoen produkzioaren berlokalizazioa erosketa publikoaren bitartez egin dezakete eta politiken inguruko eztabaida sortu dezakete, munduko beste herrialdeetako akordioaren bitartez.

Europar Batasunaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko merkataritza hitzarmen transatlantikoa da TTIP eta honek zerbitzu publikoen liberalizazioa handituko du, Autonomia Erkidegoen modu publikoan kudeatzeko aukera ezabatuz eta ingurumen-legeriak (fracking edo transgenikoena adibidez) egiteko askatasuna mugatuko du. Akordio honen bitartez multinazionalen arb

8.19 ZERGA-SISTEMA JASANGARRIA

Ingurumen-politika eraginkorrak lortzeko eta ierakundeek zerga eta ekonomia tresna ugari erabilgarri badauzkate ere, hauek ez dira normalean aplikatzen. Zerga-sistema berde bat garatzea beharrezkoa da, horrela lanak duen zerga-presioa natura-baliabideei eta ingurumena kaltetzen dituztenei bideratuz. Era berean kutsadura zigortu eta ingurumenarekiko zuzenak diren jarrerak baliotsi behar dira.

Erratum: 48. orrialdean, 8.16 puntuan, programaren lehen bertsioan akats bat zuzendu da, nekazaritza ekologikoaren sustapena ezabatuz, izan ere Alderdi Animalistak animalien edozein motatako ustiapenari uko egiten dio.

EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAKO OINARRIZKO PROGRAMA

2016KO IRAILAK 25

